

91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

26. ORDENANTZA: ORDENANTZA FISKALA, UDALEKO GIZARTE ONGIZATE ALORRAK HIRUGARREN ADINEKOENDAKO ANTOLATZEN DITUEN IKASTARO EDO JARDUERA SOZIOKULTURALETARAKO SARRERA, IZEN EMATE EDO MATRIKULAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria.

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. idatz-zatiko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

Kontzeptua.

2. artikulua. Prezio publikoak galdutako dira, Udaleko Gizarte Ongizatearen Alorrek antolatutako ikastaro eta jarduerak sozio-kulturaletan parte parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo gisako bertze edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko bertze ordenantzetan sartuta ez daudenean.

Kudeaketa eta diru-bilketa arauak.

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak ikastaroa edo jarduerak antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduerak egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko inskripzioa eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

Tarifak.

6. artikulua. Arau honetan azaltzen diren tarifak aplikatuko dira, edo kasuan-kasuan ezartzen direnak, betiere garatu behar den jarduerari egokituak, eta, hala bada, Balio Erantsiaren gaineko zergaren kuota ere eramanen du.

2017KO TARIFEN ERANSKINA - 248. NAON ARGITARATUA 2013KO ABENDUAREN 27A

	ZENBATEKOA	
	Errold.	Errold. gabeak
-Ikastaro eta tailerrak (euro/ikastaroa).	25,45	50,90